



Gipuzkoako Energia Komunitateak  
 Comunidades Energéticas de Gipuzkoa

## GURE ENERGIA-KOMUNITATEA MARTXAN DAGO, BAINA NOLA FUNTZIONATUKO DU AURRERANTZEAN?

OTC Gipuzkoako Eraldaketa Energetikorako Bulegoak, **Alkizako Udalarekin elkarlanean**, Energia Argitu programaren baitan, herrian sortu berri den Tokiko Energia **Komunitateko kideentzat** tailerra antolatu du **otsailaren 13an, 18:00tan, Fagus Alkiza interpretazio zentroan**. Tailerraren helburua da herriko energia komunitatearen egungo egoeraren berri izatea eta kideei beharrezko jakintza eta tresnak eskaintzea komunitateko kide izatearen onurak eta betebeharrak ezagutu eta bete ahal izateko. Tailerra euskaraz izango da.

Tailerrean Energia Komunitateen izaera eta ekinari buruzko hainbat arloren inguruan lan egingo da. Alde batetik, GEK bakoitzaren egoera orokorra aztertuko da eta adibide praktikoak erakutsiko dira. Bigarren atal bat GEKaren teknologia, finantza eta gobemantza egituren ingurukoa izango da eta, besteak beste, gobemantza parte-hartzailearen garrantzia azaldu eta epe luzerako ekonomia plangintza nola egin erakutsiko da. Hirugarrenatal batean, jasangarritasun printzipioak lantzearekin batera komunitate bakoitzari begirada pertsonalizatua eskainiko zaio eta bere udalerrira berezitasunetara egokitutako iraunkortasun-estrategialanduko da.

Tailer honetan parte hartu nahi duten GEKeko kideek, otsailaren 11 baino lehen izena ematea komeni da. Horretarako, honako bideak erabil daitezke:

- **Posta elektronikoa bidaltzea ondorengo helbidera: [energiabulegoa@gipuzkoa.eus](mailto:energiabulegoa@gipuzkoa.eus)**
- **Honako telefono zenbakira deitzea: 628-532-303** (asteleheneretik ostiralera. Orduetgia 9:00-17:00)
- **Informazio osagarria: [www.argitu.eus](http://www.argitu.eus)**

**Energia komunitateko bazkideek lehentasuna badute ere, interesa duen EDONORK eman dezake izena ikastaroan. Animatu!**